

Donostia Kirola doako kirol jardueren programa bat prestatu du uda honetarako

Donostia Europar Batasuneko kirol-praktikaren indize handienetako bat duen hirietako bat da, Donostia Kirolak aldiro egiten dituen kirol-ohiturei buruzko azterketen arabera. Kirol-ekipamendu publikoen sare zabal bat eta aire zabaleko kirola egiteko aukera ugari konbinatuta, Donostiako herritarrek kirol-jarduera maila oso altuak lortu dituzte.

Hiriak aukera ugari eskaintzen ditu kirola egiteko, bai hiri guneeetan, bai natur guneeetan. Herritarrek aisialdirako pisteak, aire zabaleko gimnasioak, bidegorriez eta abarrez goza dezakete, baita ingurune naturalez ere, hala nola, ibaia, hondartzak eta mendia. Egoera pribilegiatu horri esker, guztiek, adina edo trebetasun-maila gorabehera, beren osasuna eta ongizatea hobetzen dituzten jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak egin ditzakete.

Aire zabaleko espazioetan kirol-jarduera sustatzeko helburu estrategikoaren ildotik, Donostia Kirolak kalean kirol-jardueren programa bat abiarazi du uztailen. Herritar guztiei zuzendutako doako 33 kirol-jarduera programatu dira guztira, eta begirale espezializatuek dinamizatuko dituzte.

Horrela, Tai-Chi egin ahal izango da Kontxan, Nordic Walking Saguesetik edo Haizearen Orrazitik, kalistenia saioak Bentaberrin edo Intxaurren, circuit training Aieten edo Altzan, parcour Intxaurren, aire zabaleko gimnasioetako jarduerak Bidebietan, etab.

Parte hartzea herritar guztientzat zabalik egongo da, baina udal kiroldegietan edo Donostia Kirolaren webgunearen bidez aldez aurretik izena ematea gomendatzen da, jarduera horiek behar bezala garatzeko behar diren baliabideak hobeto antolatu ahal izateko.

"Oso harro gaude gure hiriko kirol praktikaren indize handiekin", adierazi du Iñaki Gabarain Kiroletako eta Bizitza Osasungarriko zinegotziak. "Bizitza aktibo eta osasuntsu bat mantentzearen garrantzian irmo sinesten dugu, eta gure herritarrei hori lortzeko beharrezkoak diren tresnak eta aukerak emateko konpromisoa hartzen dugu.

Donostiak kirolaren bidez osasuna eta ongizatea sustatzeko konpromisoa erakusten jarraitzen du, eta Europar Batasunean erreferente gisa finkatzen da kirol-praktikari eta bizi-kalitateari dagokienez "

Jardueren programa osoa Donostia Kirolaren webgunean aurki daiteke